

ZAIN DEZAGUN URDAIBAI

busturialdeko garapen eusgarrirako auzo elkarte

PORTADA

1.- GURI BURUZ / NOSOTROS

2.- PARTEHARTZEA

3.- GALTZAGORRIAK

5.- DOCUMENTUAK

6.- BUSTURIALDEKO FOROA


7.- URDAIBAI BE (ues)

8.- RB URDAIBAI

9.- ABINAGAKO KOLONIA BABESTU.

martes, 27 de noviembre de 2007

Azeria eta Lehoia' lanagaz amaitu dau Edorta Jimenezek Piztien itsasoa' trilogia



'Balearen barbaroa' eta 'Sukar ustelaren urtea' nobelei 'Azeria eta Lehoia' izeneko lana generatu eta orain dala hamar urte baino gehiago hasitako 'Piztien itsasoa' trilogiari amaiera emon deutso Edorta Jimenezek. Liburua gaur aurkeztu dau Bilbon, Txalaparta argitaletxeko ordezkari Mikel Sotogaz eta Elkar Fundazinoko kide Mikel Arrizabalagagaz.

Aurkeztu barri dauen lana eta, azken batean, trilogia osoa sorterrari, itsasoari, arbasoei... egindako oparia dala azaldu dau mundakarrak. Lehenengo lana Irati alabeari kontautako ipuinetan oinarrituta idatzi eban; bigarrena Roberta Gozzi italiarrari esker, *'lehenengo lana italierara itzuli izan ez baleu ez neukelako bigarrenagaz segiduko'*; eta, hirugarren hau, Beatriz

Estebanek bultzatuta, emakume horrek Sebastian protagonisteari deutson maitasuna dala eta. Holan ba, emakumeak izan dira protagonista Edorta Jimenezen ibilbidean.

Estilo aldetik, *'nobela arinagoa egiten saiatu naz; trilogian, protagonisteak hainbat gauza ezagutu ditugu, etsaiak, gudak... Orain, etxera bueltau da eta trankilago dago'*. Irakurleari irakurketea astun ez egiten ahalegindu dala azpimarratu dau mundakarrak, *'batez be itsasontzien deskribapenak dagozanean'*.

Kritikarako tartea be izan da aurkezpenean, euskal idazleak geto moduan hartzen diranaren inguruan. *'Komunikabideetan ez gara ia existiduten, ez telebistan, ez irratian...'*, esan dau. Halanda ere, esperantza egon badagoala igarri jako Jimenezi: *'irakurleak baditugu eta eurei esker bizi gara'*. Hizkuntzea be izan dau berbagai: *'literatureak batzen du gure hizkuntzea'*.